



BEROAREN AURREKO GOMENDIOAK TOKI-ERAKUNDEENTZAT

Temperatu altua dagoenean:

- Herritarrei eta entitatearekin lotutako baliabideei alertari eta beroaren ondorioak prebenitzeko neurriei buruzko informazioa helarazi, ohiko bideak erabiliz. Kontuan hartzekoak:
 - Oinezkoentzako zentroak
 - Jantoki sozialak
 - Haur-eskolak, hiri-kanpalekuak, ikastetxeak, etab.
 - Adinekoen zentroak/Erretiratuen elkarteak
 - Eguneko zentroak eta adinekoen egoitzak
 - Kirol-zentroak (kiroldegiak, igerilekuak)
 - Etxez etxeko arreta-zerbitzuak
 - Langileentzako informazioa ematea toki hauetan: udal-lokalak, udaltzaingoa, lorezaintza, herri-lanak, garbiketa, etab.
- Lokal freskoak eta klimatizatuak lokalizatu eta eskaini. Ahal den neurrian, ordutegia luzatu (igerilekuak, liburutegiak, etab.).
- Inguruan antolatzen diren ekitaldien berri izan, batez ere ahalegin fisikoa eskatzen duten ekitaldiena, jendetza biltzen dituztena edo eguneko ordu nagusietan egiten direnena, hala nola kultura-, kirol- eta kanpaleku-jarduerak.
- Jarduerak etetea, atzeratzea edo ordutegiz aldatzea baloratu, tenperatura handiko egoeretan osasunerako arriskua dakarten alerta-egunetan.
- Prebentzio-neurrien berri eman ekitaldi horietara joaten diren pertsonei.
- Tenperatura altuko aldietan, komenigarria da bakarrik bizi diren adinekoekin harremanetan jartzea, egunean behin gutxienez. Horretarako, erakundearen mendeko zerbitzuak, oinarritzko gizarte-zerbitzuak eta abar, erabiltzea gomendatzen da.